1/2023 INSTRUKZIOA, APIRILAREN 21EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, 2023-2024 IKASTURTEKO LANORDUETAKO ETA LANORDUZ KANPOKO EUSKARA IKASTAROEN ESKAERAK TRAMITATZEKO ETA LANGILEAK AUKERATZEKO PROZEDURA ZEHAZTEN DUENA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren eta Osakidetzako-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren 2023 martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenak ezarritakoa betez, instrukzio honen bidez euskara ikasteko eskabideak tramitatzeko eta langileak aukeratzeko prozedura ezartzen da, 2023-2024 ikasturteari dagokiona. Hona hemen xede horretarako ematen diren

JARRAIBIDEAK

1.- INDARRALDIA

Instrukzio honek arauak ematen ditu 2023-2024 ikasturteko lehen lauhilekoari dagokion lanorduetako ikastaroetan eta urte osoa hartzen duten euskara ikasteko eskabideak tramitatzeko eta langileak aukeratzeko prozedura zehazteko.

Datorren urrian bigarren deialdia argitaratuko dute Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak, oraingo honen osagarria, eta 2023-2024 ikasturteko bigarren lauhilekorako eskaintza egingo dute.

2.- NORENTZAT

Deialdian parte har dezakete Osakidetzako langileek, lan-harremana edozein izanda ere, baldin eta 2023ko urtarrilaren 1etik ikastaro mota bakoitzerako eskaerak egiteko epea bukatu arte, zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan badaude (lanorduetakoa: 2023ko maiatzaren 5a; lanorduz kanpokoa: 2023ko maiatzaren 26a).

Gainera, aldi baterako langileen eta ordezkoen kasuan, ebazpena EHAAn argitaratu aurreko hamabi hilabeteetan guztira bost hilabetetik gora lan egin behar izan dute Osakidetzan, eta ikastaroak iraun bitartean lanean egongo direla aurreikusi behar da.

Espezialitatea egiten ari diren egoiliarrek euskalduntze ikastaroak egin ahal izango dituzte, euren prestakuntza aldiaren urtea gorabehera.

3.- ESKABIDEEN EPEAK, TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENA

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskaera telematikoa egin beharko dute, Osakidetzaren intranet korporatiboaren bidez. Hona hemen helbideak eta bideak:

- www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > 1-2-3-4HE prestatzeko ikastaroak > 2023-2024 ikasturtea: deialdi nagusia > Eskainitako ikastaroak / Eskaerak)

C/. Alava, 45 - 01006 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 006 253 - e-mail: pertsonak@osakidetza.eus

Eskaera telematikoa egitea ezinezko den kasuetarako, interesdunek zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzetan aurkeztu ahal izango dute izena emateko eskabidea. Inprimakia intranet korporatiboan izango da interesdunen eskura.

Deialdian onartua izateko beharrezkoa da eskabidea epearen barruan eta behar bezala aurkeztea, aurreikusitako modalitateetako edozeinetan.

Zerbitzu-erakundeek GIZABIDE-EUSKERA prestakuntza moduluan erregistratu beharko dituzte paperean aurkeztutako eskaerak. Onartutako eta ukatutako eskabideen zerrenda Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko da, lanorduetako ikastaroen kasuan, aukeratutako erretserbak zehaztuta.

3.1.- Lanorduetako ikastaroetarako epeak

Eskabidea egiteko epea: 2023ko apirilaren 21etik maiatzaren 5era, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskabiderik onartuko.

2023ko maiatzaren 19a izango da azken eguna zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzek Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzan eskabideak aurkezteko.

2023ko ekainaren 2a izango da azken eguna Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPi baimendutako eskabideen berri emateko.

Baimendutako eskabideekin batera, ahal dela, zenbait ordezkorenak ere bidaliko dira (gutxienez 2 eta gehienez 4), bajak gertatuz gero, ordezkoekin betetzeko aukera egon dadin. Ordezkapen horiek IVAPek taldeen antolaketaren berri ematen duen arte egin ahal izango dira; normalean iraileko bigarren hamabostaldian izaten da.

Zerbitzu-erakundeen zuzendaritzek interesatuei jakinaraziko diete idatzizko jakinarazpenaren bidez haien eskabidea baimendu duten ala ez. Onartu ez dutenean, arrazoia espresuki azaldu beharko die interesatuei. Jakinarazpena 2023ko maiatzaren 19rako egin beharko da beranduen ere. Halaber, zerbitzu-erakundeek zabalkunde handiena duen hedabideen bidez emango dute jakinaraztera onartuen eta ukatuen zerrenda (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula ...).

3.2.- Lanorduz kanpoko ikastaroetarako epeak

Eskabidea egiteko epea: 2023ko apirilaren 21etik maiatzaren 26ra bitartean, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskabiderik onartuko.

2023ko ekainaren 16a izango da azken eguna zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzek Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzan eskabideak aurkezteko.

2023ko uztailaren 3a izango da azken eguna Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPi baimendutako eskabideen berri emateko.

3.2.1.- Baimendutako eta baztertutako eskaeren zerrendak jakinaraztea

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak Osakidetzak baimendutako eskaeren zerrendaren berri emango dio IVAPi, honek eskaerak aztertu, eta, hala badagokio, onar ditzan.

IVAPek, eskaerak aztertu ondoren, Osakidetzari jakinaraziko dio ezetsitako eskabideen zerrenda, baztertzeko arrazoia adierazita.

IVAPek ezetsitako eskaera guztiak jaso ondoren, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariak, ebazpen baten bidez, baimendu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratuko du. Baztertutakoen kasuan, bazter uztearen arrazoia adieraziko da. Adierazitako ebazpena Osakidetzaren intranet korporatiboan argitaratuko da 2023ko uztailaren bigarren hamabostaldian. Era berean, zerbitzu-erakundeek ebazpenaren berri emango dute, erakundean zabalkunde handiena duten bitartekoen bidez.

Baimendu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda Osakidetzaren intranet koorporatiboan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek 15 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariari aurkezteko.

Erreklamazioak Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan aurkeztu ahal izango dira eta, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotako edozein eratan.

Osakidetzak, bere aldetik, aztertuko du IVAPek ordu-kreditua agortuta izateagatik bazter utzitako eskaerek, Giza Baliabideen zuzendariaren 2/2018 Jarraibideek ezarritako betekizunak betetzen dituzten, euskara ikasten jarraitzeko ohiz kanpoko laguntza jaso ahal izateko.

Dagokion epean aurkeztutako erreklamazio guztiak eta IVAPek ordu-kreditua agortuta izateagatik bazter utzitako eskaera guztiak aztertuta, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen bidez ebatziko dira. Ebazpen horrek baimendu eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda jasoko du; baztertutakoen kasuan, bazter uztearen arrazoia adieraziko da. Behin betiko zerrendan zehaztuko da, halaber, prestakuntza IVAPek edo Osakidetzak finantzatuko duen. Aipatutako ebazpena Osakidetzaren intranet korporatiboan argitaratuko da 2023ko irailaren lehen hamabostaldian. Era berean, zerbitzu-erakundeek ebazpenaren berri emango dute, erakundean zabalkunde handiena duten bitartekoen bidez.

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendari Nagusiari hilabeteko epean, ebazpena intranet korporatiboan jendaurrean jartzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak irailean bidaliko ditu zerbitzu-erakundeen langileen zuzendaritzetara langileentzako matrikula-orriak. Zerbitzu-erakundeek zabalkunde handiena duen hedabideen bidez jakinarazi beharko dute interesdunek matrikula-orria jasotzera joan behar dutela.

4.- ESKAINITAKO IKASTAROAK

4.1.- Lanorduetako ikastaroak

Deialdi honetan eskaintzen diren ikastaroak honako hauek dira:

- Barnetegia
- Bost orduko trinkoa
- Egunero 2 orduko ikastaroa
- 4HE prestatzeko ikastaroak (aurrez aurrekoa)

a) Bost orduko, egunero 2 orduko eta 4HE prestatzeko ikastaroetan, administrazio langileez osatutako taldeak antolatzen saiatuko da IVAP hiru hiriburuetan, goizez. Taldeak osatzean, ikasle bakoitzari bere langileen zuzendaritzak baimendutako modulua gordeko dio IVAPek, ahal den neurrian.

Goizez eratuko diren administrazio taldeetara egokitzen ez diren langileentzat, IVAPek matrikula-orriak bidaliko ditu Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara, honek langile bakoitzaren langileen zuzendaritzara helarazteko. Matrikula-orriaren bitartez, langilea edozein euskaltegi publiko edo pribatu

homologatutan matrikulatu ahal izango da, betiere baimendu zaion moduluan. Pertsona interesduna dagokion euskaltegiaren egutegira eta ordutegira egokitu beharko da.

IVAPek ez du administrazioaren berezko talderik osatuko arratsaldean. Beraz, ikastaro bat arratsaldez egin nahi duten langileek matrikula-orri bat jasoko dute edozein euskaltegi publiko edo pribatu homologatutan matrikulatzeko, betiere baimendutako moduluan. Era berean, beste ordutegi batzuetan edo beste herri batzuetan ikastea eskatzen duten ikasleei, matrikula-orri bat bidaliko die, edozein euskaltegi publiko edo pribatu homologatutan matrikula daitezen, betiere baimendutako moduluan. Interesduna dagokion euskaltegiaren egutegira eta ordutegira egokitu beharko da.

b) Barnetegia aukeratu duen langileak matrikula-orria jasoko du ikastaroa Lazkaoko edo Zornotzako barnetegian egiteko. Langilea bera arduratuko da tokia erreserbatzeaz.

Deialdi honen bidez egin ahal izango diren lanorduetako ikastaroen egutegiak eta ezaugarriak martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenean daude jasota. Era berean, aipatu Ebazpenaren III. Eranskinean aipatzen dira IVAPen matrikula-orriaren bidez egin daitezkeen lanorduetako ikastaro moduluak.

4.2.- Lanorduz kanpoko ikastaroak

Ikastaro hauek 2023-2024 ikasturte osorako izango dira, hau da, urritik ekainera; beraz, bigarren lauhilekoan ez da ikasle berririk onartuko.

Deialdi honetan eskaintzen diren ikastaroak honako hauek dira:

- Aurrez aurreko ikastaroak euskaltegian
- Autoikaskuntza ikastaroak
- 4HE prestatzeko ikastaroak (aurrez aurrekoak eta autoikaskuntza bidezkoak)

Deialdi honen bidez egin ahal izango diren lanorduz kanpoko ikastaroen ezaugarriak eta moduluak martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenean daude jasota.

5.- LANORDUETAKO IKASTAROEN ONARPEN-ARAUDIA

Lanorduetako ikastaroa baimentzeko orduan kontuan hartuko dira aurreko ikastaroetan langileak izandako aprobetxamendua, ordu-kredituaren saldoa eta martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenean ezarritako gainerako betekizunak.

Zerbitzu erakunde bakoitzaren zuzendaritzak aukeratuko ditu ikastaro hauetan parte hartuko duten langileak.

Eskolarik ez dagoen egunetan, euskara ikastaroa lanorduetan egiten ari diren langileek beren lanpostuetara itzuli beharko dute ezinbestean, aurrerago banatuko den egutegiaren arabera. Normalean horrela gertatzen da Gabonetako eta Aste Santuko eskola-oporretan, jaiegunetan, baita euskaltegiak egiten dituen asteburuko zubietan ere.

Ikastaroaren egutegi zehatza ikastaroa hasi baino lehenago banatuko da, eta bertan adieraziko dira jai eta zubi egunak. Egutegian izan daitekeen edozein aldaketa garaiz jakinaraziko da.

Zerbitzu-erakundeko zuzendaritzak bermatuko du ikastaroetan parte hartuko duten langileek euren oporrak ikastaroko egutegiarekin egokitzen dituztela, ikastaroen aprobetxamenduak kalterik izan ez dezan. Langileen zuzendaritza bakoitzak liberatuta dagoen langilearen karteldegia urteko ohiko lanaldira egokituko du.

Liberatuta dagoen langileak eskola-egunetik kanpo hartu behar ditu opor-egunak, ikastaro hauen ezaugarriak kontuan hartuta, aprobetxamendua ahal den onena izateko.

Ikas-prozesua eteteak ikastaroan jarraitzeko eskubidea galtzea ekar lezake.

a) Ikastaro trinkoak (5 ordukoak eta barnetegiak)

Liberazioak lau hilabeterako izango dira. Hurrengo liberazioa eman aurretik kontuan hartuko dira aurreko ikastaroko aprobetxamendua, ikaslearen ordu-kredituaren saldoa eta martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenean ezarritako gainerako betekizunak.

b) Bi orduko ikastaroak

Lanorduetan 2 orduko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute soilik txanda finkoan ari diren langileek.

Modulu honek ikasturte osorako iraupena du; beraz, bigarren lauhilekoan ez da ikasle berririk onartuko.

6.- LANORDUETAKO IKASTAROETARAKO AUKERAKETA-IRIZPIDEAK

Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 3. Planaren 8.1.2. puntuan ezarritakoaren arabera, zerbitzu-erakundeeek liberazioa eskainiko dizkiete zerbitzu estrategikoetan diharduten, euren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko euskara-maila egokia duten eta euskaldunei arreta euskaraz emateko borondatea duten profesionalei.

Lagungarri gisa, lanorduetako ikastaroetara joango diren pertsonak hautatzeko, honako irizpide hauek erabil ditzakete erakundeek:

- Derrigortasun-datadun lanpostuak betetzen dituzten langileek lehentasun handiagoa izango dute derrigortasun-datarik gabeko lanpostua betetzen dutenek baino.
- Langile finkoek lehentasun handiagoa izango dute finko ez direnen langileek baino.
- Euskara maila altuagoa egiaztatu duten langileek lehentasun handiagoa izango dute maila baxuagoa dutenek baino.
- Adinagatik edo lan-harremanagatik, inor ez da baztertua izango lanorduetako euskara ikastaroetara joateko. Dena dela, 55 urtetik gorako langileen kasuan, deialdi honen aurreko bi ikasturteetan B1B1 maila edo altuagoa izatea hartuko da kontuan, edo bestela ekainean egingo den mailaketa-proban maila hori eman beharko dute.

Kontuan hartuta prestakuntzaren helburua dela zerbitzu-erakundearen helburuak lortzen laguntzea, ondorengo irizpide hauek ere aintzat hartuko dira irizpide nagusiekin batuz eta osatuz:

- Egiaztapena lortzeko behar den prestakuntza-denbora.
- Hizkuntz eskakizuna jadanik egiaztatu duten langileen birziklatze beharrak.
- Lanpostu funtzionalari ezarri zaionetik gorako hizkuntz eskakizuna egiaztatzea komeni izatea, efektibo bateko funtzioak betetzearen inguruan egoeraren arabera suerta daitezkeen zirkunstantzia bereziengatik.
- Pertsonal finko ez-titularrak, adinagatik salbuetsita dauden langileek edo pertsonal interinoak betetzen duen efektibo batean modu espezifikoan sortzen diren behar zehatzak eta ohiz kanpokoak, hala nola, atenditutako herritarrak pozik ez egotea, eskatzen dituzten zerbitzu elebidunak ez jasotzeagatik, edo jarduera asistentzialeko arduradunek paziente eta erabiltzaileekiko komunikazioaren harremanen kalitateari eragiten dioten gabezia garrantzitsuak nabaritzea.
- Aldi baterako pertsonala denean, efektibo horretan jarraitzeko aurreikuspena ere baloratuko da.

- Langileen ikaste-prozesua nabarmenki erraztu edo zailtzen duten gorabeherak eta horregatik prozesuaren errendimendua eta hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko aukerak areagotu edo murriztu ahal dituztenak, hala nola, hasierako euskara maila eta langilearen adina.
- Efektiboaren harreman zuzena paziente eta erabiltzaileekin, Osakidetzaren euskararen erabilera normalizatzeko den 67/2003 Dekretuaren eta zerbitzu-erakundeko Euskara Planaren lehentasunen arabera.

7.- LANORDUZ KANPOKO IKASTAROEN ONARPEN-ARAUDIA

Ikastaro hau 2023-2024 ikasturte osorako da, hau da, urritik ekainera; beraz, bigarren lauhilekoan ez da ikasle berririk onartuko.

Lanorduz kanpoko ikastaroak Osakidetzako zuzendari nagusiak martxoaren 20an emandako 588/2023 Ebazpenaren bigarren oinarriaren baldintzak betetzen dituzten Osakidetzako langileentzat dira.

Martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenaren 2. oinarrian jasotakoaz gain, interesdunek aipatu ebazpenaren zazpigarren oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte Osakidetzak lanorduz kanpoko eskaera onartzeko:

a) 2022-2023 ikasturtean matrikula-orria jaso edo itzuli izana.
b) Autoikaskuntza ikastaroa egiteko eskaera denean, gainera:
- Txandaka lan egitea edo, lanpostuaren berezitasunak direla eta, euskaltegian aurrez aurreko ikastaroa egiteko zailtasunak izatea.
- 2022-2023 ikasturteko autoikaskuntza ikastaroa utzi ez izana.
- Asistentzia % 75etik gorakoa izatea 2022-2023 ikasturteko bigarren hiruhilekoaren amaieran.

Beraz, zerbitzu-erakundeek ukatu egingo dituzte aipatu baldintzak betetzen ez dituzten langileen eskaerak.

Lanorduz kanpoko ikastaroetan ez da onartuko ikastaro mota aldatzea; beraz, langileak onartu zaion ikastarorako matrikula-orria jaso ondoren, ezin izango du aldatu.

7.1. Lanorduz kanpoko autoikaskuntza ikastaroetarako aukeraketa-irizpideak

Autoikaskuntza ikastaroak txandaka lan egiten duten edo, euren lanpostuaren berezitasunak direla eta, euskaltegian aurrez aurreko ikastaroa egiteko zailtasunak dituzten langileentzat dira. Hori dela eta, autoikaskuntzako ikastaroetan parte hartzeko baimena ematerakoan lehentasuna izango dute txandaka lan egiten duten langileek, ondorengo hurrenkeraren arabera: langile finkoek, bitartekoek, ordezkoek eta behin-behinekoek.

Kontuan izanda autoikaskuntza ikastaroetarako guztizko lizentzia kopurua mugatua izango dela eta zerbitzu-erakunde bakoitzak lizentzia-kupo jakina izango duela, autoikaskuntza ikastaroa egiteko baimena irizpide hauen arabera emango da, ondorengo hurrenkeran: langile finkoak, bitartekoak, ordezkoak eta behin-behinekoak:

1. Txandaka lan egiten duten langileek lehentasuna izango du txandaka lan egiten ez dutenen aurretik.
2. Derrigortasun-datadun lanpostuak betetzen dituzten langile finkoek lehentasun handiagoa izango dute derrigortasun-datarik gabeko lanpostua betetzen dutenek baino.
3. Euskara Planean lehen mailako lehentasunezko unitateetan lan egiten duten langileek lehentasuna handiago izango dute bigarren mailako unitateetan lan egiten dutenek baino.

4. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten langileek lehentasun handiagoa izango dute egiaztatuta dutenek baino.
5. 2022-2023 ikasturtean autoikaskuntza moduluan ikasten ari direnek lehentasun handiagoa izango dute ikasten ari ez direnek baino.
6. 2022-2023 ikasturtean autoikaskuntzako moduluan ikasten ari diren langileen artean, lehentasuna izango dute ikasturtearen 2. hiruhilekoaren amaieran % 75etik gorako asistentzia izan dutenek.
7. Ordezkoen eta behin-behineko langileen kasuan, lehentasun handiagoa izango dute Instrukzio honen 2. oinarrian ezarritako epean egun gehiago lan egin dutenek.
8. Ordezkoen eta behin-behineko langileen kasuan, lehentasun handiagoa izango dute Osakidetzan lanean denbora gehien daramaten langileek

Zerbitzu erakunde bakoitzaren langileen zuzendaritzak aukeratuko ditu autoikaskuntza ikastaroetan parte hartuko duten langileak.

8.- JASO EZ DIREN MATRIKULA-ORRIAK, IKASTAROEI UKO EGITEAK ETA ESKOLA-UZTEAK TRAMITATZEKO ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA

8.1.- Langileek jaso ez dituzten matrikula-orriak

Zerbitzu-erakundeek azaroaren 10erako bidaliko beharko dituzte Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara langileek jaso ez dituzten matrikula orriak.

8.2.- Ikastaroari uko egitea

Zerbitzu-erakundeek, langileek aurkeztu ahala bidaliko dituzte ukoen jakinarazpenak eta matrikula orriak, ukoen laburpen-zerrendarekin batera. Agiriok bidaltzeko azken eguna 2023ko azaroaren 10 izango da. Giza Baliabideen Zuzendaritzak ez ditu onartuko data horretatik aurrera jasotako ukoak.

8.3.- Eskola uztea

a) Eskola-uzteak erregistratzea.

Zerbitzu-erakundeek langileak uko-jakinarazpena aurkeztu duen egun berean erregistratuko du erakundearen erregistroan inprimakia.

IVAPek diruz lagundutako aurrez aurreko ikastaroei dagokienez, oso garrantzitsua izango da inprimakia zerbitzu-erakundearen langileen zuzendaritzan lehenbailehen erregistratzea. Izan ere, eskola-uztearen data inprimakia langilearen zerbitzu-erakundearen erregistroan sartu den eguna izango da, eta IVAPek egun hori hartuko du ordu-kredituaren kontaketa eteteko.

IVAPek diruz lagundutako autoikaskuntza ikastaroei ere sarrera erregistroa emango zaie, Osakidetzak ikastaroen kontrol eta jarraipen egokia egin ahal izateko.

Osakidetzak diruz lagundutako ikastaroa egiteko baimena duten langileen uko-jakinarazpenak ere erregistratuko dira, aurrez aurrekoak zein autoikaskuntzakoak izan.

b) Eskola-uzteak bidaltzea eta Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboari jakinaraztea.

- IVAPek ordaindutako ikastaroak.
  - Aurrez aurreko ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa bidaliko dute zuzenean IVAPera egun berean, IVAPek dagokienei horren

berri eman diezaien. Halaber, Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboari eskola uztearen berri emango diote.

- Autoikaskuntza ikastaroen kasuan, eskola-uztearen jakainarazpena Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboari jakinaraziko zaio solik.

• Osakidetzak ordaindutako aurrez aurreko zein autoikaskuntza ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatibora bidaliko dute.

9.- ORDU KREDITUA

Deialdi honetan parte hartzen duten langile guztiek ordu-kredituaren sistema izango dute ezarrita, betiere IVAP eta Osakidetzaren arteko lankidetza hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduak ezarritakoaren arabera.

Agindu horren seigarren artikuluari jarraikiz, IVAPen bidez euskara ikastaroren bat hasi ahal izateko beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea ikasturte hasieran.

Ikasle berriaren ordu-kreditua ezartzeko orduan kontuan hartuko den hasiera-maila urrikoa izango da, edo otsailekoa urrian ikastarorik egin ez badu.

9.1.- Ordu-kreditua agortuta duten langileek egindako ikastaroak finantzatzea

Deialdi honetan ordu-kredituan aldeko saldorik izan ez eta IVAPek finantzatuko ez duen langileen ikastaroa Osakidetzak finantzatuko du, horretarako duen aurrekontuaren bidez, betiere langileak Giza Baliabideen Zuzendaritzak martxoaren 12an emandako 2/2018 Jarraibideetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

10.- LIBERAZIOAK SAPen ERREGISTRATZEA

Lanorduetan euskara ikasteko baimena duten langileei 90PK absentismo neurria (euskalduntzea) aplikatu beharko zaie SAPen. Neurri hori ikastaro trinkoetan edo barnetegian liberatutako langileei zein egunean bi orduko ikastaroak egiten dituztenei aplikatuko zaie, langileek ordezkoa izan ala ez.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak, ikastaroa hasi baino lehen, ikastaroaren egutegi zehatza emango du, eta bertan jaiegunak eta zubiak zehaztuko dira; beraz, zerbitzu-erakunde bakoitzak egutegi horren arabera aplikatu beharko dio 90PK neurria liberatutako langile bakoitzari. Eskola-egutegian egiten den aldaketa oro garaiz jakinaraziko da.

Era berean, kontuan hartu behar da eskolarik ez dagoen guztietan liberatutako langileek euren lanpostura itzuli behar dutela (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenaren 8.3. oinarria). Normalean horrela gertatzen da Aste Santuko eta Gabonetako eskola-oporretan, jaiegunetan, baita euskaltegiak egiten dituen asteburuko zubietan ere.

Horregatik, hori kontuan hartu beharko da euskalduntzeagatik absentismo-neurriaren hasiera- eta amaiera-datak ezartzerakoan.

11.- ORDEZKAPENAK SAPen ERREGISTRATZEA

Euskara ikasteko liberazioak betetzeko kontratatzen diren ordezkapenetan SAPeko ondorengo neurri eta zioetako bat aplikatu beharko da kasuaren arabera: 9A, 13; 81, 09 zioa; 83, 09; 84, 10; 84, 11; 9Y, 07.

Neurri horiek aplikatzerik ez dagoenean, zerbitzu-erakundeek Euskara Zerbitzuari kontsultatuko diote. Ordezko langilea ordezkatu behar denean, ostera, ez dira neurri horiek aplikatuko.

Era berean, kontuan hartu behar da eskolarik ez dagoen guztietan, liberatutako langileek euren lanpostura itzuli behar dutela (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenaren 8.3. oinarria). Normalean horrela gertatzen da Aste Santuko eta Gabonetako eskola-oporretan, jaiegunetan, baita euskaltegiak egiten dituen asteburuko zubietan ere.

Horregatik, aipatutakoa hartu beharko da kontuan ordezkoen kontratuetako hasiera eta bukaerako datak ezartzeko orduan.

Beraz, eskolarik ez dagoenean langilea ez bada lanera itzultzen, ordezkoaren neurria egokitu egingo da.

12.- DEIALDIKO ARAUAK

2023-2024 deialdiko alderdi orokorren arau zehatzak (ikastaro motak, epeak, onartua izateko baldintzak, asistentzia, matrikula-orriak eta matrikulatzea, ikastaroari uko egitea, asistentzia eta ikastaroa uztea, dirulaguntza izateko baldintzak, ikastaroaren aprobetxamendua, ordu-kreditua eta abar), martxoaren 20ko 588/2023 Ebazpenean daude jasota (Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean 2023ko apirilaren 20an argitaratua).

Zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzak eskaera egiten duen langileari ikastaroen gaineko informazio-orria emango dio. Orri hori Osakidetzaren intranet korporatiboan ere jarriko da langileen eskura.

13.- DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikulua betez, jakinarazten da deialdi honen eremuan euskara-ikastaroak kudeatzeko datu pertsonalen tratamendua, alde batetik, Osakidetzaren ardurapean egingo dela, eta, beste alde batetik, IVAPen ardurapean.

Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetzak tratatuko dituela eta GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla. Tratamendu horren helburua da Osakidetzako langileak kudeatzea, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko. Datuak hirugarren erakundeei jakinaraz dakizkieke. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere.

Datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara:
https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa

Halaber, interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak IVAPek tratatuko dituela eta EAEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN EUSKALDUNTZEA izeneko tratamendu-jardueran sartuko

direla. Tratamendu horren helburua da EAEko administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak kudeatzea eta ebaluatzea, eta, hala badagokio, programatzea eta bertaratzea gestionatzea, bai eta hizkuntza-gaikuntzagatik esleitutako ordu-kreditua kudeatzea ere. Hori guztia, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun baten arabera. Datuak hirugarren erakundeei jakinaraz dakizkieke. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere.

Datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara:
https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0215_eu.html

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 21a

Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA